

# Antxiñako fotografixia



## Sasue bateko San Migelak

**E**rosarixoko bixamoneko fotografixia dozue. Ezta 40 urte eukiko, baiña urrin barik ibilliko da. Kale zaharrian behe-  
ra, Illaramendiñeko kantuetik San Antue kalera hartzera doan musika-talde hau *Aitzgorri* tabernako kuadrilliak moduketan ehen; garai haretako gazte honeik urte batian baiño gahixagotan jardun ebein kalerik-kale txarangiaz bixamon egunian. Hemen banaka batzuk agiri arren, kuadrilla ugarixa zan Torreneko taberna inguruan mobiitten zan gazte-talde honeña: 24-25 bat lagun bai, gutxienez, eta gehixenak jazten ziran musikero egun horretarako.

Argazkixan ezagutu dittugunak honeik dira: **Felix Urzelai**, *Kaiona*, zuzendari lanetan; **Joxe Antonio Aranburu** eta

**Jabier Arregi** bonbo-joten; bonbojolien erdixan **Antonio Madina**, *Obixaganekea*, txapero; hurrengo illaran **Imanol Perosterena** eta **Juan Karlos Mancebo** danborrero; eta atzera-go, klarinetia juaz, **Jexus Guridi**, *Torrenekea*. Ezkerkaldeko neskatilla-mutikuen artian batzuk ezagunak egitten xaku: **Josefina Gorritxo**, **Maria Luisa Urrutia**, **Jerardo Elortza** eta **Rafael Ugarte**, bestiak beste; eta aurrekaldeko mutikotxuak **Andres Osinaga** izan bihar dau. Besteren bat nor dan baldin badakizue, pasau abixua aldizkari honetara eta hurrengo alian argittaratuko dogu.

*J.E.*

Argazkixa Plazaolak ataratakua da.

### ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
A. Lizaur, 7  
OÑATI

Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK  
KORTINAK



ELKORO C. B  
KRISTALDEGIA

San Lorenzo, 13 B  
Lazarra, 3 behea  
Tfnoa: 78 24 06. OÑATI

Ispiluak  
Lunak  
Beiradurak  
Segurtasun-kristalak  
Aluminiozko leiho  
eta pertsianak  
P.V.C  
Poliuretano  
CLIMALIT